# Nafarroako Autopistak 2019an izango dituzten tarifak eta ordainsariak berritu ditu Nafarroako Gobernuak

*Kontzesionariarekin dagoen kontratuari jarraiki egiten den urteroko eguneraketa da*

Osteguna, 2019.eko urtarrilak 10

Nafarroako Gobernuak akordio bat onetsi du zeinaren arabera Nafarroako Autopistan 2019an ezarriko diren oinarrizko tarifa, oinarrizko ordainsariak eta deskontu zehatzak ezarri diren. Eguneraketa, urtekoa izango da, eta kontzesionariarekin dagoen kontratuaren arabera egiten da.

Honakoan, 2019ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31a arteko tarifak 2018an indarrean izan direnen berdinak izango dira, eguneraketa +2,185%ekoa da, 2017ko azaroaren 1etik 2018ko urriaren 31 arte izandako KPIaren %95 berdina, zeina %2,3 igo den.